



»»» danok irabazle!

Entrenamenduetan euskeraz, zergaitik ez?

Ikasturtea laster hasiko da eta ikasturteagaz batera entrenamenduak be bai.

Kirol ekintzetan ume eta gazte askok parte hartzen dabe, eta eurentzat entrenatzaileak eta monitorea eredua dira hainbat alorretan, baita hizkuntzearen erabilereari jagokonean be.

Entrenatzaileok eta monitoreaok marketan dozue hizkuntzea. Zuek entrenamenduetan euskeraz egiten badozue, umeen eta gazteen artean euskeraz berba egiteko ohiturea zabalduko da.

Euskeraz egiteko ahalegin txikia egin ezker, emoitza oparoak izan leitez. Holan, kirol saioetan monitorea zein hizkuntza darabilen, haxe erabiliko dabe umeek eta gazteek be. Erraza da azalpenak eta aginduak euskeraz emotea (Euskaltzaindiko inor be ez dogu eukiko atzean faltea adierazteko!).

Danok egin geinke zeozer euskerearen alde.

Euskeraz, danok irabazle.

